

AZAROAK 17: IKASLEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Gaur, azaroak 17, Ikasleen Nazioarteko Eguna da. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) indarrak batu ditugu ikasle mugimenduen aitortpena lau haizeetara zabaltzeko.

Manifestu honen bitartez hurrengo lerroetan jasotzen diren aldarrikapenak gizarteratu nahi ditugu:

- **Boluntariotzaren oinarria**
Ikasle elkarteak irabazi asmorik gabeko taldeak dira eta ikasleen eskubideak defendatzea helburu dute. Ikasle mugimenduetan aktiboki inplikatuak dauden gazteek boluntarioki egiten dute lan. Horrek antolaketarako gaitasuna eta konpromisoa eskatzen du, talde lanean lan egiteko prestutasuna eta ekintzak antolatzeko denbora eskainiz.
- **Ikasle mugimenduen garrantzia**
Ikasleen eskubideak gertutik ezagutu eta defendatzen dituzten eragileak dira. Ezinbestekoa da haien bitartekaritza-lana ikasleon interes eta beharrak erabakitze-organoetara helarazteko eta hobekuntzarako proposamenak landu eta ekintzak burutzeko.
- **Egindako lanaren aitortpena**
Ikasle mugimenduek aktibo jarraitzen dute eta ikasleentzako erreferenteak dira. Hezkuntza ibilbide honetan parte-hartzea sustatzen dute eta garrantzitsua da figura honen aitortpena burutzea eta egiten duten lanari bermea ematea.
- **Unibertsitate esparrutik haratago**
Gehienetan ikasle elkarteek hitz egiterako orduan unibertsitate esparrua datorkigu burura. Egia da hor jasotzen direla elkarte mugimenduen ordezkariak gehienak, baina azpimarratu beharra dago bai Bigarren Hezkuntzatik aurrera eta baita Lanbide Heziketako ikastegietan ere aurki daitezkeela inplikatuak dauden ikasle elkarteak.

Horretaz gain, egun honetan egindako aldarrikapenarekin batera ikasleak horrelako egituretan parte-hartzera animatu nahi ditugu. Dauden elkarteetako partaide izatea da gure helburua eta bide batez gazteen interesekin bat datorren egitura aurkitzen ez bada elkarte berri bat sortzeko beldurrik ez izatea.

2017-2018 ikasturtera begira, EGK-k Hezkuntza Formaleko alorrean aurkitzen den Hezkuntza Foroa lantaldean parte hartzeko interesa eta nahia izan dezakeen ikasle elkarte, sindikatu, eragile eta gazte orori deia egiten diogu haien proposamenak txertatze aldera eta lantaldearen aniztasuna handitze aldera.

Hezkuntza Foroan identifikatutako lehenetsuen artean, ikasle elkarten bateratasunean aurrerapausoak ematea da. Antolatutako eragileon artean eskuak elkarri zabaltzea eta gutxieneko adostasunetatik hasita pauso txikiak ematen hastea etorkizunean aldaketa handiak nabarmentzeko.